



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko irailaren 13a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kreditu-beharrizanak estaltzeko (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko lege proposamena. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).

—Lege proposamena, Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzekoa. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira osasun-arreta unibertzala berma dezaten. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat ezar diezaion, harik eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte, Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkeztu du (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Alderdi Popularrak, Voxek eta Cidananosek motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari buruzko Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtsioak. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gobernuaren txofer-zerbitzuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).

- Galdera, Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektorialaren behin betiko onespeneri buruzkoa, Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak Nafarroaren funtsei eragindako gaitzazko buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- Galdera, egoitza-lekuen kudeaketarako esparru-akordio berriari buruzkoa, Marta Álvarez Alonso andreak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Foru Komunitateari dagokion senataria hautatzea. Hautaigatzak aurkezteko epea (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako izendatu behar dituen lau kideak hautatzea (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako hautatu behar duen kidea hautatzea (17. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kreditu-beharrizanak estaltzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko irailaren 4an hartutako Erabakiaren bidez, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kreditu-beharrizanak estaltzeko kreditu-gehigarri bat ematen duen Foru Lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Baztarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kreditu-beharrizanak estaltzeko kreditu-gehigarri bat ematen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea (10-19/LEY-00007).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kreditu-beharrizanak estaltzeko

HITZAURREA

Estatuak egina du jada Enplegu eta Lan Afereko Sektorereko Konferentziak emandako funtsen hasierako banaketa, hiru bloketan antolatzen dena: Enplegua, Prestakuntza eta Modernizazioa. Prestakuntzaren blokeak 12.084.797 euroko diru-sarrerak jasoko ditu.

2019ko gastuen aurrekontuaren barruan sartuta daude, besteak beste, partida hauek:

- 950002-96200-2276-242102 partida, "Prestakuntza programetarako asistentzia. Sektorereko konferentzia" izenekoa.

- 950002-96200-4809-242100 partida, "Prestakuntza ekintzetarako bekak. Sektorereko konferentzia".

- 950002-96200-2279-242104 partida, "Cenifer programetarako asistentziak. Sektorereko konferentzia" izenekoa.

- 950002-96200-2276-242103 partida, "Prestakuntzarako ekintza osagarriak. Sektorereko konferentzia" izenekoa.

- 950002-96200-4819-242200 partida, "Lantegi-eskolen programak eta programa espezifikokoak. Sektorereko konferentzia" izenekoa.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kreditua handitzeko beharra du ikastetxe berekien (Iturrondo eta CENIFER) prestakuntza ekintzetarako, parte-hartzaileei prestakuntza ekintzak finantzatzeko beketarako eta ekintza osagarrietarako.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua, bere lehen paragrafoan, ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu-gehigarri bat ematekoa. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu-gehigarria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal dela, Parlamentuak zuzenketak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

Kreditu-gehigarri bat ematen da, 1.800.000 eurokoa, 2019ko ekitaldirako, honela banatuta:

– 1.500.000 euro, “Prestakuntza programetarako asistentzia. Sektoreko konferentzia” izeneko 950002-96200-2276-242102 aurrekontuko partidarako.

– 150.000 euro, “Prestakuntza ekintzetarako beka. Sektoreko konferentzia” izeneko 950002-96200-4809-242100 partidarako.

– 100.000 euro, “Cenifer programetarako asistentziak. Sektoreko konferentzia” izeneko 950002-96200-2279-242104 partidarako.

– 50.000 euro, “Prestakuntzarako ekintza osagarriak. Sektoreko konferentzia” izeneko 950002-96200-2276-242103 partidarako.

2. artikulua. Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

1.800.000 euroko kreditu-gehigarri honen finantzaketa partida honetan erabilgarri dagoen kredituaren kargura egingen da: 2019ko indarreko gastu aurrekontuko 950002-96200-4819-242200 partida, “Lantegi-eskolen programak eta programa espezifikokoak. Sektoreko konferentzia” izenekoak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko lege proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikuluen babesan, Geroa Bai talde parlamentarioak Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko Lege proposamena aurkeztu du (10-19/PRC-00001).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 212. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko Lege proposamena izapidera onartzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua aldatzeko lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza da gizartearen zutabeetako bat; hortaz, gizarte-eraldakuntzarako oinarritzko elementu bat da. Halatan, botere publikoek garatu beharreko hezkuntza-politikak printzipio jakin batzuk bete behar ditu; besteak beste, hezkuntza-sistema laiko baten aldeko apustua.

Helburu horrek talka egiten du Espainiako Konstituzioaren 27.3 artikuluen gaur egungo testuak ezartzen duenarekin; izan ere, artikulua horren arabera, “botere publikoek bermatzen diete gurasoei, beren sinesmenak direla eta, seme-alabek haien arabera erlijio- eta moral-heziketa jasotzeko duten eskubidea”.

Hezkuntza-sistema laiko baterantz joateko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, Konstituzioa aldatzea, halako moduan non ahalbidetuko baitu etorkizunean erlijio konfesionala ez irakastea eskola-curriculumean.

Artikulu bakarra. Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluko 3. apartatua kentzen da.

Azken xedapena.

Konstituzioaren aldaketa hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Lege proposamena, Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesan, Geroa Bai talde parlamentarioak Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzeko Lege proposamena aurkeztu du (10-19/PRC-00002).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 212. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzeko Lege proposamena izapidera onartzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege proposamena, Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzekoa

Hezkuntza da gizartearen zutabeetako bat; hortaz, gizarte-eraldakuntzarako oinarritzko elementu bat da. Halatan, XXI. mendeko hezkuntza-politikak printzipio jakin batzuk bete behar ditu; besteak beste, hezkuntza-sistema laiko baten aldeko apustua.

Espainiako Estatuan Konstituzioa onetsi ondoren, Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko

7/1980 Lege Organikoaren 1. artikuluan ezartzen da erlijio- eta kultu-askatasuna deritzonerako eskubidea, Konstituzioak aitortutako oinarritzko eskubide gisa, aipatu lege organikoan ezarritakoarekin bat bermatzen dela. Ildo horretatik, 3. artikulua gehitzen duenez, eskubide horien aplikazioa benetakoa eta eragingarria izan dadin, botere publikoek behar besteko neurriak hartuko dituzte, euren mendeko establezimenduetan erlijio-laguntza ahalbidetzeko, bai eta irakaskuntza-zentro publikoetan erlijio-heziketa ahalbidetzeko ere.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2. xedapen gehigarriak, erlijioaren irakaskuntzari dagokionez, ezartzen du erlijio katolikoaren irakaskuntza egokituko dela Egoitza Santuaren eta Estatu espainolaren artean izenpetutako irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakora. Horretarako, eta akordio horretan xedatutakoari jarraiki, erlijio katolikoa arlo edo jakintzagai gisa sartuko da bidezko hezkuntza-mailetan. Nahitaez eskaini beharrekoa izanen da ikastetxeentzat, eta borondatezkoa ikasleentzat.

Beste alde batetik, aipatu xedapenak gehitzen duenez, beste erlijio batzuen irakaskuntza egokituko da Espainiako Estatuak Espainiako Erljio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako Lankidetzak Akordioetan eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakora. Halaber, dagokion erlijio-agintari bakoitzari eskumenak esleitzen dizkio, bai curriculum eta ebaluatu beharreko ikaskuntza estandarrak zehazteko, bai testuliburu edo material didaktikoen erabilerari buruzko erabakiak hartzeko.

Aurrekoarekin loturik, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa emandako testuan, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa berak xedatzen du –18. artikuluan, Lehen Hezkuntzarako; 24. eta 25. artikuluetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako; eta 34. bis eta ter artikuluetan, Batxilergorako–erlijioaren irakaskuntza egonen dela hezkuntza-maila horietako berariazko irakasgaien artean; lehen aipaturiko bigarren xedapen gehigarriaren arabera, eskaintza hori ikastetxeentzat nahitaezkoa eta ikasleentzat borondatezkoa izanen da, erlijio katolikoaren kasuan. Beste alde batetik,

abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretuak ezartzen du, beste alderdi batzuen artean, erlijio-irakaskuntzak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan sartuko direla, xedapen gehigarri berean ezarritakoari jarraiki.

Hezkuntza-sistema laiko baterantz joateko, ezinbestekoa da behar diren lege-aldaketei ekitea, eskola-curriculumean erlijio konfesionala ez irakasteko. Horretarako, ezinbestekoa da gaur egun Estatuan indarra duten legezko xedapen horiek aldatzea.

1. artikulua.

1. Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren 2. artikuluko 1. apartatuko c) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“c) Erlijioari buruzko era guztietako informazioa jasotzea eta ematea, ahoz, idatziz edo beste edozein prozeduraren bidez; beren sinesmenen araberako erlijio- eta moral-heziketa hautatzea, norberarendako eta haren menpeko adingabe emantzipatugabeendako eta ezgaituendako, eskola eremutik kanpo”.

2. Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren 2. artikuluko 3. apartatuaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“3. Eskubide horien aplikazioa benetakoa eta eragingarria izan dadin, botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte, establezimendu publiko, establezimendu militar, ospitale, laguntza-izaerako establezimendu, espetxe eta euren mendeko beste establezimendu batzuetan erlijio-laguntza ahalbidetzeko”.

2. artikulua.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 18. artikuluko 3. apartatuko b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“b) Balio sozial eta zibikoak.”

2. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 18. artikuluko 3. apartatuko c) letrako 3. eta 4. apartatuak kentzen dira:

3. artikulua.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 24. artikuluko 4. apartatuko b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“b) Balio etikoak”

2. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 24. artikuluko 4. apartatuko c) letrako 7. eta 8. apartatuak kentzen dira:

4. artikulua.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 25. artikuluko 6. apartatuko b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“b) Balio etikoak”

2. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 25. artikuluko 6. apartatuko e) letrako 9. eta 10. apartatuak kentzen dira:

5. artikulua.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 34.bis artikuluko 4. apartatuko b) letrako 7. apartatua kentzen da.

6. artikulua.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 34.ter artikuluko 4. apartatuko j) letra kentzen da.

7. artikulua.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarria kendu egiten da.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe uzten dira maila bereko edo apalagoko arau guztiak, arau honetan ezarritakoari aurka egiten dioten heinean.

Azken xedapenetako lehenbizikoa.

Gobernuari baimena ematen zaio lege honetan xedatutakoa aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman eta behar diren neurriak hartzeko.

Azken xedapenetako bigarrena.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiatzen dira osasun-arreta unibertsala berma dezaten.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiatzen baitira osasun-arreta unibertsala berma dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko premia buruzko 16/2012 Errege Dekretua onetsi eta gero –dekretuak osasun-sistemarako sarbiderako hainbat muga ezarri zuen–, Nafarroan bizi diren pertsonen Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen dien otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak. Foru lege horren aurkako errekur-tso bat aurkeztu zen, eta Konstituzio Auzitegiak indargabetu egin zuen otsailaren 22ko 17/2018 epaiaren bidez.

PSOeren Gobernuak Osasun Sistema Nazionalerako Irispide Unibertsalari buruzko uztailaren

27ko 7/2018 Errege Lege Dekretua onetsi zuen geroago, non funts publikoen kargura osasunaren babesa eta osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baita.

Baina urtebete geroago, bere horretan diraute osasunerako irispide unibertsala bermatzeko arazoek. Zenbait gizarte-entitatek –Amnistia Internazionalak, Salaketa Sareak edo Yo Sí, Sanidad Universalak– bazterketa-egoerak salatu dituzte Estatuan, “Espainian osasungintza unibertsalik” ez dagoela esateraino.

Nafarroan ere, Nafarroako Osasun Plataforma, Médicos del Mundo, Papeles y Derechos Denontzat eta Nafarroako SOS Arrazakeria elkarteek aurtengo apirilean adierazi zuten Osasun Sistema Nazionalerako Irispide Unibertsalari buruzko uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretuak atzerapauso bat ekarri duela –bere anbiguotasunagatik, exigitzen dituen baldintzengatik eta gehiegizko burokratizazioagatik– osasun-arretari dagokionez.

Entitate horiek Osasun Departamentuari eta talde parlamentarioei adierazi zieten kezkatuta daudela, arauaren idazketa anbigua delako eta baldintza asko ezartzen dituelako osasun-arreta jasotzeko eskubidea aitortzeko; esate baterako, erroldatuta hiru hilabete eramatea frogatu behar izatea. Gainera, lortzen zaila den dokumentazioa aurkeztu behar dute; esaterako, bere herrialdean osasun-laguntza jasotzeko eskubideak Estatuan balio ez duelako ziurgatiria edo inolako estaldura pribaturik ez daukatelako; alegia, ez dagoela osasun-kostua bere gain har dezakeen hirugarren bat.

Arazoa larriagotu egiten da behin betiko bizitoki bat esleitu bitarte Nafarroan behin-behinean bizi diren errefuxiatuen kasuan, edo egoera prekarioan dauden pertsonen kasuan eta hainbat arrazoi direla medio (lapurreta, galera, eta abar) identifikazio-agiri baliodun bat ez daukatenean kasuan.

Orobat zuzenean eragiten die Estatura lege-baimenarekin iristen diren egoiliar ez-nazionalen aurreko ahaideei; izan ere, aseguru medikoa exigitu zaie hemen bizitzeko baimena eman dakien, eta aseguru mediko hori gutxienez ere urtebetez mantentzera behartuta daude, osasun-arreta osasun-txartel indibidualaren bidez bermatuta eduki arte. Praktikan, prekariotasun ekonomikoa dela eta, pertsona horietako askok ez dute asegurua mantentzen.

Egoera horietan, osasun-zerbitzu batek pertsona bat artatzen baldin badu, osasun-zentroetako administrazio-zerbitzuek emandako faktura bat jaulkitzen da, arretaren kostua jasotzen duena.

Osasun-zentro bateko gizarte-langileekin harremanetan jarri diren pertsonen kasuan, behin egoera aztertuta, ordaintzetik salbuesteko txosten bat jaulkitzen da, emandako fakturaren ondorioak balio gabetzeko balio diona. Jokabide hori osasun-sistemako edozein dispositibotan jasotako arreta guzti-guztietan errepikatzen da: oinarrizko osasun-laguntza, ospitalez kanpoko larrialdiak, ospitaleko larrialdiak, ospitaleratzeak, eta abar. Hau da, arreta orotan da beharrezkoa Gizarte Lanaren txostena ordaintzetik salbuesteko, eta horrek are gehiago zailtzen du osasun publikorako sarbidea.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du osasungintza publiko, doako eta unibertsalerako eskubidearekiko konpromisoa pertsona guztientzat, zein ere den horien administrazio-egoera, eta eskubide hori gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak bultzatzen jarraitzeko bere borondatea erakusten du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eman beharreko jarraibideak eman ditzan osasun-arreta unibertsala modu eragingarrian bizkortzeko eta bermatzeko eta ez diezaien faktura gehiagorik egin administrazio-egoera irregularrean dauden edo bestelako egoera ahuletan dauden pertsonen, disuasio-efektua ekiditeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du eragingarri egin dezan osasun-arretarako sarbidearen ustezko unibertsaltasuna, eta Osasun Sistema Nazionalerako Irispide Unibertsalari buruzko uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretuak dauzkan hutsuneak zuzendu ditzan.

Iruñean, 2019ko irailaren 4an

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat ezar diezaion, harik eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat ezar diezaion, harik eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Ezkaba mendia gure erkidegoko lekune natural bat da, honako udalerriek elkarrekin daukatena: Berriozar, Antsoain, Berriobeiti, Txulapain, Ezkabarte, Atarrabia, Iruña eta Uharte. Mendi hori erreferentzia dugu bertan dagoen bioaniztasunaren zaintzaren aldetik eta horren magalean bizi diren pertsona guztiek nahiz gure lurraldeko beste toki batzuetatik bertaratzen direnek aisialdiaz, kirolaz eta naturarekiko harremanaz gozatzeko eremu gisa erabiltzen den aldetik.

Ezkaba mendia Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektorialean sartuta dago, zeina eragile politiko, sozial eta ingurumen-arlokoek eta herritarrek diseinatu eta adostu baitute, azken bost urteotan Iruñerriko Mankomunitatean irekita egon den partaidetza-prozesuaren bitartez. Udalez gaindiko Plan Sektorial horrek dio helbu-

rutzat duela "...beharrezkoak diren neurriak ezartzea, halatan ziurtatze aldera mendietako paisaia- ren, ingurune fisikoaren eta landa-ingurunearen naturguneen babesa, kontserbazioa, katalogazioa eta hobekuntza. Era berean, xede du bertako natur eta kultur ondarearen zaintza harmonizatzeara, erabilerak eta jarduerak arautuz eta ingurumen-hezkuntza nahiz mendien balio-jartzea sustatuz...".

Udalez gaindiko Plan Sektorial horrek honako helburuak zerrendatzen ditu:

– Naturako landarediaren kontserbazioa eta berreskurapena, harizti eta artadien bilakaera aldeztuz, bai eta zuhaitz-landaredi autoktonoaren nahiz berarekin baterako zuhaixka- eta belar-espezieen pixkanakako berreskurapena ere.

– Eremua oihan-suteen aurka babestea, bai eta eragin negatiboak ekar ditzaketen erabileren aurka ere (eraikingintza, mendi-pistak irekitzea, azpiegituren garapena).

– Mendi hauen tradiziozko nahiz gaur egungo erabilerei eustea.

– Ibilbide jarraituak definitzea, jada badauden trazadurak aprobetxatuz eta jarraitutasunik eskaintzen ez dutenak ezabatuz; jostaleku/begiralekuak apailatzea eta endekaturiko zonak beren onera ekartzea.

– Ibilbideen izaera bereiztea, halatan ezartze aldera zein diren haiek birgaitzeko edo egiteko baldintzak; halaber, urbanizazioaren nahiz seinaleztatzearen trataera bateratua izateko baldintzak ezartzea.

– Lurzoruaren jabetzaren zehaztapena, ibilbideei jarraitutasuna ematen dieten horien jabetza lortzeko, ziurtatzearen publikoa izatea haien erabilera.

– Planaren ingurumen-eraginaren gaineko kontrola, eta zuzenketa- edo minimizazio-neurriak.

– Motordun ibilgailurik gabekoentzat irisgarritasuna hobetzea eta motordun ibilgailuen bitarteko iritsiera ekiditea.

– Gotorlekuaren monumentu-multzoa mendia- rekin integratuz kontsideratzea, paisaiari nahiz funtzionaltasunari dagokienez, eta kultur ondare

historikoarekin zerikusia duten gizarte-eskakizunei oihartzun ematea.

– Oinarriak paratu eta esparru orokorra taxutzea gotorlekuaren berreskurapenaz etorkizun batean eginiko edozein planteamenduri begira.

– Ingurumen-heziketa sustatzea.

Gaur den egunean, Defentsa Ministerioak baimena eskatua dio Berriobeitiko Udalari, 52 mendihektarea hesitzeko, asmoa izaki Aitzoaingo kuartel militarretik Alfontso XII. aren Gotorlekurainoko itxitura jartzea. Itxitura hori 1,5 metroko altuerako zutoin eta hesiekin paratuko da, 3 metroko zabaleran sastraka-garbiketa eginda.

Horren ondorioa litzateke mendian bizi diren animalia-espezieei itxi eginen litzatekeela mendia- ren beste alde batzuetarako igarobide naturala, haien biziraupena zailduta. Landare nahiz zuhaitzek naturgune horretan eginen liratekeen aldaketen ondorioak nozituko litzukete, eta populazio zibilak debeku izanen luke pasatzea.

Defentsa Ministerioak erabilera militararako zedarritua den eremu bat sortu nahi du, mendi-ibilbideak inbaditzen dituen, hala nola GR-225 (Alfontso XII.aren gotorlekutiko ihesaren bidea, Nafarroako Gobernuak memoria historikoaren toki izendatua), GR-220 bidea (Iruñerriko Itzuliaren ibilbidea) eta SL-NA 172 mendi-bidea. Horrenbestez, alferrik galtzen dira gizarte zibilak mendi

honentzat eginiko lan guztia eta aukeraturiko helburuak.

Bardeako Biosferaren Natur Erreserba bezalaxe, mendi hau entrenamendu militararako toki bihurtuko litzateke, ondoriozko ingurumen-inpaktuarekin eta jardun militarri loturik mendiaren osotasunak izanen litzuketen arriskuekin (suar- armen tiroak, sute-arriskua, ibilgailuen joan-etorriak...). Horrek sute-arriskua ere areagotuko luke inguru horretan, eta, hesia egoteak sute horien itzaltzea oztopatuko luke.

Erabaki proposamena:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu- a premiatzen du moratoria bat ezar dezan Defentsa Ministerioak eginiko eskaerari dagokio- nez, harik eta Ezkaba Parkearen Udalez gaidiko Plan Sektoriala behin betikoz onesten den arte.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober- nu- a premiatzen du uka dezan Ezkaba mendiaren parte hori itxi eta berari erabilera militarra emateko baimena.

– Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gober- nu- a premiatzen du atzera egin dezan asmo horre- tan.

Iruñean, 2019ko irailean

Eleduna: Marisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Alderdi Popularrak, Voxek eta Cidananosek motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari buruzko Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtsioak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak errefusatzen ditu parlamentu honek oinarritzko eskubideak ustez urratzeari buruz Konstituziokontraktasuneko errekurtsioetan Alderdi Popularrak eta Voxek eta Cidananosek erabilitako argudioak, eta berresten du motibazio politikoko indarkeriaren biktimen eskubideak aldeztu jardunen duela.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa har- tzen du Nafarroak arlo honetan dituen eskubideak juridikoki aldezteko eta urrats eraginkorrak emate- ko, eskuin muturreko taldeek eta funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin- tzen biktimen errekonozimendu eta erreparazioa helburu; halaber Nafarroako Gobernu- a premia- tzen du konpromiso hori bera har dezan” (10- 19/DEC-00049).

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren txofer-zerbitzuari buruzkoa.*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren txofer-zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

2019ko urtarrilaren 1ean zenbat langile zegoen gidari-zerbitzuari atxikirik?

Gobernuko zenbat eta zer departamentuk zeuzkaten atxikirik gidariak –izenez edo modu iraunkorren– kontseilari berriak abuztuaren 7an karguaz jabetu ziren arte?

Karguaz jabetu ostean, zenbat eta zeintzuk dira gidariak –izenez edo modu iraunkorren– atxikirik dauzkaten departamentuak?

Aurreko legegintzaldian, Nafarroako Gobernuko gidari-zerbitzuko langileek bularreko minbizia- ren aurkako diagnostikoak egiten dituen ibilgailua gidatzeko lanak egiten al zituzten lanaldi gisa?

Langile horiek orobat ematen al zuten zerbitzua Nafarroako Odol Bankuarentzako materiala garraiatzen zuten ibilgailuetan?

Gobernu berria eratzean zerbitzu horiek emateari utzi al diote?

Zerbitzu horiek kanpoan kontratatzen al dira orain? Hala baldin bada, nork ematen ditu gaur egun zerbitzu horiek eta zein da kostua?

Iruñean, 2019ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektorialaren behin betiko onespeneri buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektorialaren behin betiko onespeneri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak, 2019ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen, zeinaren bidez abian jarri baitzen Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektorialaren espedientearen izapidetzea, Iruñerriko Mankomunitateak sustatua. Horren helburua zen beharrezkoak diren neurriak ezartzea, halatan ziurtatze aldera mendietako paisaiaren, ingurune fisikoaren eta landa-ingurunearen naturguneen babesa, kontserbazioa, katalogazioa eta hobekuntza. Era berean, xede du bertako natur eta kultur ondarearen zaintza harmonizatzea, erabilerak eta jarduerak arautuz eta ingurumen-hezkuntza nahiz mendien balio-jartzea sustatuz.

Eremuak zortzi udaletako lurak hartzen ditu: Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, txulapain, Ezkabarte, Atarrabia, Iruña eta Uharte. Mendi horietako azalerarik handiena basoa da, era askotako ezaugarriekin, eta proportzio txiki-txiki batean badira nekazaritzako zenbait lursail eta hirigune edo eremu ertzetan urbanizatu.

Proposatzen den parke-ereduak bateragarri egin nahi ditu landa- eta natur izaeraren zaintza eta hori hiri-gizartera hurbilaztea, aisiaerako eta jarduera publikorako espazioekin. Parkea konekti-

bitate-eremu gisa hartzen da, goragoko sistema batean sar daitekeena lurralde-plangintzari begira, Argako ibai-parkearekin, Plazaolako eta Iratiko bide berdeekin eta Donejakue Bidearekin konektatuta. Parkearen barruan nabarmeneko da Iruñerriko Itzulia GR220, parkearen sarean horren jarraitutasuna bermatzen baita, barne-mugikortasuna eta Iruñerriko mendiaren kanpo lotura ahalbidetuz, eta Ihesaren Ibilbidea GR225, zeina gotorlekuan hasten baita eta ipar-hegaletik jaisten baita Ezkabartetik Olaibarrera, Esteribarrera, Errora eta Aldudera (Urepel) igaroz.

Proposatzen den ibilbide-sareak irisgarritasuna ahalbidetzen du, mendiaren beraren mugak errespetatuz. Bide-mota ezberdinak daude, ekipatuenetik hasi eta basabide naturalizatuenetaraino. Halatan, esku-hartze mailaren eta ibilbideen ezaugarrien arabera hierarkizatzen da sarea. Gainera, sarbideak aurreikusten dira erabiltzaileei harrera egin eta informazioa emateko eginkizuna betetzen duten herrietatik.

Iruñerriko Mankomunitateak Nafarroako Gobernuari erantzun zion herritarrek eta erakundeek aurkeztutako alegazioekin eta Gobernuko departamentuek 2019ko otsailean egindako gogotekin. Gaurko egunean ez dakigu zertan den eskualde-parke berri hori eratzeko espedientearen izapidetzea zertan den, ez eta Nafarroako Gobernuak horri buruzko behin betiko erabakia noiz hartuko duen ere.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari:

Gobernuak noiz uste du onetsiko duela behin betikoz Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala?

Zer administrazio-izapide uste du Gobernuak ez dela bete, behin betiko onespeneri hori atzertzeko?

Behin betiko onespeneria atzertzeko zerikusirik izan al du Defentsa Ministerioak (3. zenbakiko obra-komandantziak) Berriobeitiko Udaleri Ezkaba mendiko baso-eremu bat itxeko proiektu bat aurkeztu izanak, tiro-eremuaren segurtasun-eremua handitzea helburu?

Iruñean, 2019ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak Nafarroaren funtsei eragindako gainkostuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak Nafarroaren funtsei eragindako gainkostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren arabera, Gobernuaren egitura berriak 6,6 milioi euroko gainkostua ekarriko die Nafarroaren funtsei (1,65 milioi euro urtean). Halere, zenbateko horretan soilik sartu da zuzendari nagusiei, kontseilarietara, goi-kargudunei eta kabineteko langileei dagokien gainkostua, baina ez egiturazko gainkostua, hori egiturari buruzko dekretuak taxutzen direnean zehaztuko dela adierazi baitu.

Hori dela-eta, dekretu horiek onesten direnean legegintzaldi guztirako gainkostua urtez urte zein izanen den igortzea eskatzen dut, honako hauek zehatuta:

Zenbat kontseilari gehiago egonen den egitura berriaren ondorioz:

Gainkostua urtez urte:

Gainkostua legegintzaldi osoan:

Zenbat zuzendari nagusi, zuzendari kudeatzaile eta bestelako goi-kargudun gehiago egonen den egitura berriaren ondorioz:

Gainkostua urtez urte:

Gainkostua legegintzaldi osoan:

Zenbat kabineteburu gehiago egonen den egitura berriaren ondorioz:

Gainkostua urtez urte:

Gainkostua legegintzaldi osoan:

Zenbat kabineteko idazkari gehiago egonen den egitura berriaren ondorioz:

Gainkostua urtez urte:

Gainkostua legegintzaldi osoan:

Zenbat kabineteko laguntzaile gehiago egonen den egitura berriaren ondorioz:

Gainkostua urtez urte:

Gainkostua legegintzaldi osoan:

Zenbat idazkari orokor tekniko gehiago egonen den egitura berriaren ondorioz:

Gainkostua urtez urte:

Gainkostua legegintzaldi osoan:

Zenbat zerbitzuburu gehiago egonen den egitura berriaren ondorioz:

Gainkostua urtez urte:

Gainkostua legegintzaldi osoan:

Zenbat burutza gehiago egonen den egitura berriaren ondorioz:

Gainkostua urtez urte:

Gainkostua legegintzaldi osoan:

Iruñean, 2019ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, egoitza-lekuen kudeaketarako esparru-akordio berriari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, egoitza-lekuen kudeaketarako esparru-akordio berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Zer gertatuko da esparru-akordiotik kanpo geratu diren egoitzetan plaza itundu bat betetzen

ari diren pertsonekin? Horri buruzko zer planifikazio egin edo egingen du Eskubide Sozialetako Departamentuak?

2. Zenbat pertsona ukituko ditu egoera honek?

3. Zerbitzuari Lotutako Prestazio bat eskainiko zaien pertsonen bermatuko al zaie ez zaiela garestiago aterako plaza itundu batean egotea baino? Nola? Inolako araudi-aldaketarik egingen al da? Zein epetan?

4. Horrela jokatzeko bada, irizten al du Departamentuak berdintasunaren urraketa bat egon daitekeela plaza itundu baten zain dauden pertsonen dagokienez? Horri zer konponbide emateko asmoa du?

5. Kasua bada, hori egiteko zenbateko aurrekontu berezia beharko du Departamentuak? Zer partidatetik finantzatuko du?

6. Beste egoitza batera joatea erabakitzen duten pertsonen dagokienez, zer planifikazio dabil Departamentuak, hori egiteko moduari buruz? Zer kostu izanen dute ekintza horiek? Zer partidatetik finantzatuko da?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateari dagokion senataria hautatzea.

HAUTAIGATZAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 208. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Espainiako Konstituzioaren 69.5 artikuluari eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 12 artikuluari dagokienez, honako hau ERABAKI DA:

1. Eledunen Batzarrarekin ados jarrita, erabaki du finkatzea Nafarroako Foru Komunitateari dagokion senatari-kopurua batekoa dela. Senatari hori hautatzeko prozedura Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 208. artikuluan ezarritakoa izanen da (10-19/ELC-00002).

2. Senataria izateko hautagaiak aurkezteko **epea 2019ko irailaren 19an bukatuko da, 17:00etan.**

3. Hautagai bakoitza aurkezteko idazkiarekin batera, zeina aurkezle den talde parlamentarioaren edo foru parlamentarien elkartearen ordezkariak sinatua egonen baita, beste agiri hauek aurkeztu beharko dira: hautagaitza-onartzearen adierazpena; Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 6. eta 154. artikuluetako hautaezintasun-arrazoirik ez dagoela dioen zinpeko adierazpena; hautesle-errolan dagoela dioen ziurtagiria; eta hautagaia Nafarroako udalen batean erroldatuta dagoela dioen ziurtagiria.

4. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlametuak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako izendatu behar dituen lau kideak hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak VI. tituluaren bidez sortu eta arautu zuen Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua, Nafarroako Foru Komunitatean gardentasunaren arloko kontrol-organo independente gisa, publizitate aktiboko betebeharrak betetzen direla zaintzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzeko.

Foru Lege indardunaren 65. artikulua xedatzen du Nafarroako Parlamentuko lau kide aipatu Kontseiluaren kide izanen direla, eta haien izendapenerako aintzat hartuko dela Nafarroako Parlamentuan dauden taldeen arabera aniztasun irizpidea.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren lehendakariak Parlamentu honi eskatu dio izenda ditzala aipatu organoan Legebiltzarrak izanen dituen ordezkariak, Kontseilua eratze aldera.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautapen horretarako arau berriazkorik. Hori dela eta, Erregelamenduaren

37.1.Bederatzigarrena artikuluekin bat, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak aipatu izendapena egiteko arauak onetsi behar dituzte.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lau kideak hautatzeko prozesua hastea (10-19/ELC-00004).

Bigarrena. Aipatu hautapena egiteko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lau kide hautatuko ditu aintzat hartuta Nafarroako Parlamentuan dauden taldeen araberrako aniztasun irizpidea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean araututakoari jarraituz.

2. Talde parlamentario bakoitzak edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak hautagai bakarra eta horren ordezkoa aurkezten ahalko ditu. Biak foru parlamentari izan beharko dira.

3. Talde parlamentarioek idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari hautagaiak aurkez-

teko, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaien oniritzia.

4. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2019ko irailaren 19an amaituko da, 17:00etan.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lau kideen hautapena Legebiltzarreko Osoko Bilkura egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

7. txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak hautagai bakarraren eta horren ordezkoren izenak bakarrik jarri ahalko ditu txartelean.

8. Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta boto gehien lortu dituzten lau hautagaiak aldarrikatuko ditu.

9. Balizko berdinketak ebatziko dira Legebiltzarrean parlamentari gehien dituen talde parlamentarioaren hautagaiaren alde.

Hirugarrena. Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako hautatu behar duen kidea hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontseiluko lehendakariak Parlamentu honi eskatu dio kontseilukide berri bat izendatzeko prozesua has dezan, Socorro Sotés Ruiz andreak uko egin ondoren.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautapen horretarako arau berriazkorik. Hori dela eta, Erregelamenduaren 37.1.Bederatzigarrena artikuluekin bat, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak aipatu izendapena egiteko arauak onetsi behar dituzte.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzeko prozesua hastea.

Bigarrena. Aipatu hautapena egiteko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatuko du, Foru Komunitateko lehendakariak izenda dezan, Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legean xedatutakoari jarraituz (10-19/ELC-00005).

2. Hautagaiak izen aitortua duten juristak izan behar dira, gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientziarekin eta nafar izaera politikoa daukatenak.

Nafarroako Kontseilukide izatea bateraezina da:

- a) Nafarroako Gobernuako kide izatearekin.
- b) Europako Batasuneko, Estatuko, autonomi erkidegoetako zein toki entitateetako erakundeetako edozein kargu hautetsirekin.
- c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresario erakundeetako edozein zuzendaritza-kargurekin.
- d) Fiskal edo epaile karreretan jardunean egotearekin.
- e) Herri lan edo zerbitzu publikoen emakidadun edo kontratista diren enpresetako edozein zuzendaritza-kargurekin.

3. Honako hauek proposatu ahalko dituzte hautagaiak: talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek, Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

4. Hautagaiak Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki baten bidez aurkeztu beharko dira. Idazki horretan jaso beharko dira proposatutako hautagaiaren onarpena eta Nafarroako Kontseiluaren kide izateko betekizun legalak betetzen dituelako eta bateraezintasun kausarik ez dagoelako aitortpenak.

5. 2019ko irailaren 19ko 17:00etan bukatuko da talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek, abokatu-elkargoek eta Nafarroako

Unibertsitate Publikoak hautagaiak aurkezteko epea.

6. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

7. Aldarrikatutako hautagaiak, hautaketa egiten den Osoko Bilkuraren saioa egin baino lehen, arloan eskuduna den batzordean agertuko dira, beren merezimenduak azal ditzaten.

8. Nafarroako Kontseiluko kide berriaren hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

9. txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak hautagai bakarraren izena bakarrik jarri ahalko du txartelean.

10. Mahaiak boto-kontaketa egin eta botoen gehiengo osoa lortzen duen hautagaia hautatu dela aldarrikatuko du.

11. Aipatu gehiengo lortzen ez bada, bozketa errepikatuko da, eta bigarren bozketa honetan hautagai bakar batek ere ez badu gehiengo osoa lortzen, prozedura bukatutzat eman eta prozesu berri bat hasi beharko da.

Hirugarrena. Nafarroako Kontseiluari jakinaraztea kontseilukide berria hautatzeko prozesua hasi dela.

Laugarrena. Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak.

Legebiltzarreko Mahaiak, 2019ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 35.3 artikulua ezartzen duenez, Mahaiak ezarriko ditu, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, talde parlamentarioentzako dirulaguntzen zenbatekoa, mota eta hori jasotzeko betebeharrak, zeinen artean egonen baita Erregelamendu honetako 29.4 artikuluan ezartzen den bilkuretara joan beharra.

Horrenbestez, manu horretan jasotako agindua gaurkotu beharra dago. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35.3. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduarien 35.3. artikulua garatzeko arauak onestea.

2. Aipaturiko arauak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitaratu daitezkeen agintzea, eta 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direla ezartzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak

I. KAPITULUA

Talde parlamentarioentzako dirulaguntzak.

1. artikulua. Talde parlamentarioek beren eginkizunak bete ahal ditzaten, Parlamentuaren dirulaguntza finko bat emanen die Parlamentuaren aurrekontuaren kargura, berdina guztientzat, eta beste dirulaguntza bat, aldakorra, talde bakoitzak duen parlamentari kopuruaren arabera.

Talde Mistoaren kasuan, kontuan hartuko da Parlamentuko Erregelamenduaren 35.2 artikuluan xedatutakoa.

2. artikulua. Aurreko artikuluan aipatzen diren talde parlamentarioentzako dirulaguntzen zenbatekoa Mahaiak ezarriko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ekitaldi bakoitzerako.

Talde parlamentarioek dagozkien dirulaguntzak jasotzeko eskubidea izanen dute, harik eta hurrengo Legebiltzarra eratu arte.

3. artikulua. Diru-kopuru hori hileroko ordainduko zaie talde parlamentarioei, eta irmoki igorriko dira kasuko talde parlamentarioaren izenean.

4. artikulua. Dirulaguntzak talde parlamentarioen funtzionamendurako, antolamendurako, lan-gileendako eta jardunerako gastu arruntak finantzatzeko baliatuko dira.

Ez da finantzatzeko dirulaguntza parlamentarioen kargura talde parlamentarioek esleiturik dauzkaten eginkizunetaz haragoko kontzeptuei dagokien gasturik, salbu eta talde parlamentarioek alderdi politikoei eginiko ekarpenak, zeinak 19. artikuluan ezarritakoarekin bat utziko baitira jasota.

5. artikulua. Talde parlamentarioen osieran aldaketarik gertatuz gero, Mahaiak kasuan kasuko erabakiak hartuko ditu, halakorik egin behar izanez gero, urteko guztizko dirulaguntzei buruz –eta, zehazki, dirulaguntza aldagarriari buruz– dirulaguntza talde parlamentarioen parlamentari kopuruaren eta kasuko denboraldiaren arabera egokitzeke.

II. KAPITULUA

Baldintzak, eta baldintzak ez betetzearen ondorioak

6. artikulua. Talde parlamentarioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte Erregelamenduaren 35.1 artikuluan ezarritako ordainsariak jasoko badituzte:

a) Balio osoz eratuta egotea.

b) Taldeko kideek beren eskubide parlamentarioen erabat jabe izatea.

c) Bilkura parlamentarioetara eskuarki joatea, beren kideetako batek ordezkatuta.

d) Eginkizun parlamentarioetan eta Legebiltzarraren jardueretan komunzki parte hartzea, erregelamendu bidez jasotako eginkizunak betez.

7. artikulua. Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzeak berekin ekarriko du Legebiltzarraren aurrekontuan finkatutako ordainsariak etetea, murriztea, eta, kasua bada, galtzea.

8. artikulua. Mahaiak, ofizios edo gutxienez ere talde parlamentario batek hala eskatuta, egiaztatzen ahalko du 6. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ote diren; horretarako, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren jarduketak abiaraziko ditu.

Jarduketa horiek abiaraziz gero, eta talde parlamentario interesdunari aldez aurretik entzunez, Mahaiak kautelaz erabakitzen ahalko du ordainsariak guztiz edo hein batean etetea.

6. artikulua a), c) edo d) apartatuetan ezarritako baldintzak bete ez direla egiaztatuz gero, ordainsariak guztiz galduko dira. Artikulu horren b) apartatuan ezarritakoa bete ezean, ordainsariak proportzionalki murriztea erabakiko du Mahaiak.

9. artikulua. Taldeen ordainsariak 6. artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik hein batean edo osorik kentzeko ebazpena modu arrazoituari hartu beharko du Mahaiak, talde parlamentario interesdunari eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren. Ebazpen horren aurkako errekurtsioa aurkezten ahalko zaio Eledunen Batzarrari.

10. artikulua. Mahaiak, ofizios edo talde parlamentario interesdunak hala eskatuta, talde parlamentarioek ordainsariak galtzearen ondorioak berrikusten ahalko ditu, galera eragin zuten arrazoiak desagertzen badira.

III. KAPITULUA

Talde parlamentarioentzako dirulaguntzen kontabilitatea

11. artikulua. Talde parlamentarioek Nafarroako Parlamentuaren aurrekontuaren kargura jasotako dirulaguntzei buruzko berariazko kontabilitatea eramanen dute.

Talde parlamentarioak kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arduradun bat izendatuko du, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraziko dio.

Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arduraduna talde parlamentarioko kide bat edo hirugarren bat izan daiteke; arduradunak, betiere, kredi-

tatuta izan beharko du ekonomiari buruzko ezagutza edo esperientzia profesionala daukala.

Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arduradunak urteko kontuak aurkeztuko ditu eta kontu horietan jasotako jardueraren kontabilitate-erregulartasunaren erantzulea izanen da.

12. artikulua. Urtero, apirilaren 1a baino lehen, edo noiznahi, Mahaiak alde aurretik eskatuz gero, talde parlamentarioek Mahaiaren esku jarriko dute aurreko ekitaldiko dirulaguntzei buruzko berariazko kontabilitatea.

Legegintzaldia bukatzen den ekitaldietan, dirulaguntzaren onuradun-izaera luzatu egingen da harik eta hurrengo legegintzaldia eratzen den arte, eta legegintzaldia bukatzen denetik hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da kontabilitatea.

Artikulu honetan aipatzen den berariazko kontabilitatea aurkezteko betekizunaren ordezkari izanen da baliatu ordenamendu juridiko indardunetan talde parlamentarioentzat, alderdi politikoenentzat, alderdien federazioentzat, hauteskunde koalizioentzat edo hauteskunde-elkarteentzat ezarritako kontabilitate-betekizunetako bat.

13. artikulua. Talde parlamentarioa eratzen den unean, eta dirulaguntzak jasotzeko nahitaezko baldintza gisa, honako hauek jakinaraziko zaizkio Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari, taldeko kide guztiek sinatutako agiri baten bidez:

a) Talde parlamentarioaren izeneko kontu-zenbaki bat.

b) Talde parlamentarioaren identifikazio fiskaleko zenbakia, zenbaki horrekin egingen baitira jarduketa ekonomiko guztiak.

Azaldutako prozeduraren arabera egingen da geroago egiten den aldaketa oro.

14. artikulua. Taldeek lau urtez gorde eta zaindu beharko dituzte urteko kontuak justifikatzen eta babesten dituzten kontabilitate-idazpen guztiak erregistratzeko balio izan duten dokumentu originalak, taldearen izenenean emanak, eta Mahaiaren esku jarri beharko dituzte berariaz eskatzen baldin bazaizkie.

15. artikulua. 12. artikuluan ezarritako epean, talde parlamentarioen kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arduradunek Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuan aurkeztuko dituzte urteko kontuak, maila gorenean xehatuta, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren esku jar daitezkeen; kontuek honako hauek jasoko dituzte:

a) Balantzea

- b) Emaidza-kontua eta
- c) Azalpen-oroitidazkia.

16. artikulua. Balantzearen, emaitza-kontuaren eta oroitidazkiaren eredu laburtuak onetsi dira –1. eranskin gisa doaz honi atxikirik–, alderdi politikoei egokitutako kontabilitate plan orokorrean ezarritakoaren arabera.

17. artikulua. Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egiaztatu eginen du urteko kontuek bete beharreko formazko betekizunak betetzen dituztela, eta Legebiltzarreko Mahaiari igorriko dizkio.

Hartara, Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak aurkeztu zaion dokumentazioari buruzko txosten tekniko bat taxutuko du, zeina Mahaiari igorriko baitzaio gainontzeko dokumentuekin batera.

Kontabilitatea aurkeztu ezean edo gaizki aurkeztu ezean, Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hamabost eguneko epea emanen du okerra zuzentzeko.

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuaren txosten teknikoa ikusita, Mahaiak ebazpen-proposamen bat emanen du, eta entzunaldia eskainiko die txostenarekin ados ez daudelako halakorik eskatzen duten talde parlamentarioei.

Entzunaldia bukatuta, behin betiko ebazpena emanen da eta talde parlamentarioek aurkeztutako kontabilitatea Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizial argitaratzeko agindua emanen da.

18. artikulua. Kontabilizatu gabeko edo behar bezala justifikatu gabeko dirua itzultzea exigituko du Mahaiak.

Erreklamaturako diru-kopurua itzuli ezean edo arau hauetan ezarritako betekizunetako beste edozein bete ezean, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, diru-laguntzen ordainketa etenen du.

19. artikulua. Talde parlamentarioek alderdi politikoei, alderdien federazioei edo hauteskunde-

koalizioei eginiko ekarpenak –Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 2. artikulua 1. apartatuaren e) letran aurreikusten dira– gastu kongruentetzat joko dira talde parlamentarioaren ordainsariak justifikatzearen ondorioetarako, eta Kontuen Auzitegiak soilik fiskalizatzen ahalko ditu.

Talde parlamentarioak kontabilitate-idazpen baten bidez islatuko du ekarpen bakoitza bere kontabilitatean.

20. artikulua. Legegintzaldia hasita, baldin eta talde parlamentario bateko kide guztiek taldeak aurreko legegintzaldian baliatutako IFZ eta kontuzenbaki berberak jakinarazten badizkiote Nafarroako Parlamentuari, kudeaketa jarraituaren kontabilitate-printzipioa aplikatuko da.

Xedapen gehigarri bakarra. Talde mistoaren baitan eratzen diren foru parlamentarien elkarteek Erregelamenduan talde parlamentarioei aitortutako dirulaguntza berberak edukiko dituzte, eta garapen-arau hauen mende egonen dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrik gabe geratuko dira arau honetan xedatutakoari aurka egiten dioten xedapenak; eta, zehazki, hurrengoak:

a) Erregelamenduaren 34.2. artikulua garatzeko arauak, zeinak Mahaiaren 1989ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi baitziren (1989ko maiatzaren 19ko 40. NPAO).

b) Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauen aldaketa. Arauak Mahaiaren 1989ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi ziren (2003ko ekainaren 26ko 1. NPAO).

c) Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauen aldaketa. Arauak Mahaiaren 1989ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi ziren (2007ko ekainaren 25eko 1. NPAO).

Azken xedapen bakarra. Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta 2020ko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra.

1. ERANSKINA. EREDUAK

EGOERA-BALANTZE LABURTUAREN EREDUA **ALDIA:**

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA	X EKITALDIA	X-1 EKITALDIA
30, 32, (39) 42, 460, 464, 544, 581 480.567 570, 571, 580	AKTIBOA B) AKTIBO KORRONTEA I. Izakinak II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk III. Epe laburreko ekintzak IV. Diruzaintza		
	AKTIBOA, GUZTIRA (B) ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		
120, (121) 129	A) ONDARE GARBIA A-1) Sortutako ondarea I. Aurreko ekitaldietako soberakinak I. Ekitaldiko soberakina		
451, 51, 52, 56, 58 465,450,475,476,477 400,401,41 485.568	C) PASIBO KORRONTEA II. Epe laburreko zorrak III. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak IV. Epe laburreko ekintzak		
	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)		

ALDIA:

EMAITZA-KONTU LABURTUAREN EREDUA

Zenb. KONTUA	TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA	X EKITALDIA	X-1 EKITALDIA
700,701,702,703,704	DIRU-SARRERAK 1. Jatorri publikoko diru-sarrerak a. Funtzionamendu-gastuetarako dirulaguntzak A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)		
(600). (640),(641),(642),(649) (602),(62),(639),(634),(694),	GASTUAK (negatiboan) 2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.) 3. Langile-gastuak a) Soldatak eta lansariak b) Gizarte-zamak 4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4)		
760,761,762,768,769 (660),(662),(665),(668),(669)	I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B) 6. Diru-sarrera finantzarioak 7. Gastu finantzarioak (negatiboan) II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)		
	III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)		

MEMORIA LABURTUAREN EREDUA

MEMORIA LABURTUAREN EDUKIA (gutxi gorabeherako eredia)

1. Talde parlamentarioaren identifikazioa eta jarduera.

..... jaun/andreak, talde parlamentarioaren izenean, 2019ko ekitaldiari buruzko urteko kontuak aurkezten ditu, arauetan onetsitakoarekin bat.

..... talde parlamentarioa formalki eratutzat jo zuen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak egindako bilkuran, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 29. eta 30. artikuluetan xedatutakoarekin bat. identifikazio fiskaleko zenbakidun kontua, eta banku-kontua.

Honako hauek dira taldeko kideak:

Honako hauek dira talde parlamentarioaren barruko karguak:

Eleduna:

Eledunaren ondokoa:

Idazkaria:

Lehendakaria:

Lehendakariordea:

Talde parlamentarioa alderdi politikoari lotuta dago. Alderdia eremuko da,n eratu zen etan inskribatu zen alderdi politikoen erregistroan.

Urteko kontu hauektikra bitarteko aldiari buruzkoak dira.

Kontuak alderdi politikoei egokitutako kontabilitate-planaren arabera taxutu dira, Mahaiarenko erabakiaren bidez onetsitako eredu laburtuak erabiliz, eta bidezkoa da (edo ez) aurreko ekitaldiarekiko konparazioa.

2. Jarduketa ekonomiko-finantzarioaren printzipioak.

2.1. Irudi zehatza eta finantza-informazioari buruzko arau-esparru aplikagarria

..... ekitaldiko urteko kontuek –honekin batera baitoaz– talde parlamentarioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza ematen dute.

Talde parlamentarioarenko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroetan oinarrituta egin dira, Kontuen Auzitegiko lehendakariaren 2013ko urriaren 8ko Ebazpenean jasotako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak aplikatuta. Ebazpen horren bidez, Alderdi politikoei egokitutako kontabilitate-plana onesten duen Osoko Bilkuraren 2013ko irailaren 26ko Erabakia argitaratu zen.

2.2. Akats zuzenketa.

Bidezkoa da (ala ez da bidezkoa) ekitaldian akats zuzenketa egiteko doikuntzak egitea.

Honako balorazio-irizpide hauek aldatu dira. (ala ez da aldaketarik egin).

3. Erregistro eta balorazio arauak.

.....ko ekitaldiari buruzko urteko kontuak alderdi politikoei egokitutako kontabilitate-planean jasotako kontabilitate-printzipioekin eta balorazio-arauekin bat taxutu dira.

3.1. Diru-sarrerak eta gastuak.

Diru-sarrerak sortzapen-irizpidearen arabera egotzi dira; hau da, diru-sarrerek ordezkutzen dituzten ondasun eta zerbitzuen egiazko korrontearen berri izan denean, horietatik heldu den mone-ta- edo finantza-korrontea noiz gertatu den alde batera utzita.

Gastuak sortzapenaren zenbatekoan jasotzen dira, faktura jasota ageri den deskontu oro kendu-ta eta talde parlamentarioaren kargura erreku-peratu ezin diren instalazio, garraio eta zergetako kostu eta gastu guztiak gehituta. Ekitaldiaren barruan emandako eta talde parlamentarioaren izene-an egindako fakturak egozten zaizkio kasuko ekitaldiari.

Baliabideak handitzearen ondorioz egin ohi da diru-sarrera baten onarpena, baldin eta horren zenbatekoa fidagarritasunez ezar badaiteke. Hortaz, berekin dakar aktibo bat aldi berean onartzea edo areagotzea, edo pasibo bat desagertzea edo gutxitzea; eta, zenbaitetan, gastu bat onartzea ere bai.

Baliabideak gutxitzearen ondorioz egin ohi da gastu baten onarpena, baldin eta horren zenbate-koa fidagarritasunez balora edo ezar badaiteke. Hortaz, berekin dakar pasibo bat aldi berean onar-tzea edo areagotzea, edo aktibo bat desagertzea edo gutxitzea; eta, zenbaitetan, diru-sarrera bat edo ondare garbiko partida bat onartzea ere bai.

Ekitaldi honetan erregistratu dira ekitaldian sortutako diru-sarrerak eta gastuak.

3.2. Jasotako dirulaguntzak.

Talde parlamentarioaren diru-sarrerak Nafarroako Parlamentuak emandako dirulaguntzetatik heldu dira, eta helburu jakinik gabekoak direnez, emandako zenbatekoa zuzenean kontabilizatzen da emaitza-kontuan.

3.3. Elkarri lotutako aldean arteko transakzioak.

Talde parlamentarioak alderdiari eginiko ekarpenak, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoaren babesean eginak, emaitza-kontuan kontabilizatzen dira, egiazko ekarpen bakoitzagatik kasuko kontabilitate-oharra eginez.

3.4. Ondare garbia.

Ondare garbiaren saldoako abenduaren 31ko ekitaldi-emaitzatik heldu da (aurrezkoa ala desaurrezkoa), eta egiten du.

3.5. Kudeaketa jarraitua

Bidezkoa da (ala ez da bidezkoa) talde parlamentarioaren kontabilitatearen kudeaketa jarraituko kontabilitate-printzipioa aplikatzea, arau hauen 20. artikuluan ezarritako irizpideekin bat.

4. Bestelako informazioa.

Excel orria, gastuen eta diru-sarreraren laburpena euskarri informatikoan

